

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2014ko irailaren 22an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

2.- BERBALAGUN EGITASMOA. ZERBITZU KONTRATUA ESLEITZEA.

Xedea

Berbalagun egitasmoa kudeatzeko zerbitzua esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Kontratu honen xedea Berbalagun egitasmoa kudeatzeko zerbitzua ematea da, baldintza administratibo eta teknikoetan ezarten dan eran.

Bigarrena: Zerbitzu hau kontratatzeko publizidade bako prozedura negoziadua bideratu da. Guztira hiru enpresa gonbidatu dira:

- Hizkuntza Eskola Ofiziala
- “Gotzon Garitaonaindia” Euskal Kulturaren sustapenerako Elkarteak
- Euskaraz Kooperatiba Elkarteak-AEK

Horreetatik, “Gotzon Garitaonaindia” Euskal Kulturaren sustapenerako Elkarteak eta Euskaraz Kooperatiba Elkarteak-AEK-k eskaintzak aurkeztu dabez.

Argudioak

Lehenengoa: “Gotzon Garitaonaindia” Euskal Kulturaren sustapenerako Elkarteak eta Euskaraz Kooperatiba Elkarteak-AEK-k aurkeztutako proposamenak aztertu dira eta eranskinean jaso dira erispide guztien balorazinoa eta puntuazinoa.

Bigarrena: Kaudimen teknikoari jagokonez, enpresa biek nahikoa frogatu dabe.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: Berbalagun egitasmoa 2014ko urritik abendura bitartean kudeatzeko zerbitzua Euskaraz Kooperatiba Elkarteak-AEK-ri esleitzea prezio honetan: 4.000€ BEZa salbuetsia, Euskera Sailaren 2014ko aurrekontuaren 2270403 partidearen pentzura.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2014ko irailaren 23an.

ONETSIA
ALKATEA